



1. oinarria. Arau orokorrak.

- 1.1. Deialdi honen xedea da BERRIOZARKO Udalaren idazkari lanpostua aldi baterako betetzea *oposizio* bidez, aipatutako udalean idazkaritzan behar diren eginkizun publikoak aitzinatze aldera.
- 1.2. Hautaketa egiteko probak dira baldintza sorta honen 5. oinarriak xedatzen dituenak.
- 1.3. Kontratuaren hasierako iraupena izanen da bere titularraren baja aldiari dagokiona. Nolanahi ere, kontratua bukatuko da bere titularra lanean berriz hasten den unean edo lanpostua modu iraunkorren hornitu behar denean.

Dena dela, kontratuak dirauen bitartean, aldean arteko adostasunaz gain, kontratudunak berak nahita ematen ahal da bukatutzat kontratua, hamabost egun baliodun lehenagotik abisu emanda; baita Administrazio kontratu egilearen arrazoitutako erabakiaren bidez ere, baldin eta kontratudunari entzunaldia eman eta Udalak osoko bilkuran horren aldeko txostena eginda, gaitasun edo egokitasun gabeziaren ondoriozko arrazoiak frogatzen badira, hau da, behar baino gutxiagoko errendimendua, lanpostuaren eginkizunak modu eraginkorrean betetzea galarazten duena.

- 1.4. Lan ordutegia izanen da deialdia egiten duen Administrazioak ezartzen duena. Betiere egokituko da zerbitzuaren beharretara, eta Administrazio horrek aldatu ahalko du.
- 1.5. Lanpostuaren oinarritzko saria A mailari dagokiona izanen da, ondokoekin bat: Lansarien Behin-behineko Erregelamenduak xedatzen duena eta onartzen diren osagarriak edota, egonen ez balira, kontratua egiten duen Administrazioaren plantilla organikoan xedatuta dauden horiek.

2. oinarria. Izangaiei eskatutako baldintzak.

Lanpostuko izangaiek ondoko baldintzak bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunerako:

- A) Adinduna izatea eta Espainiako nazionalitatea izatea, edo Europar Batasuneko kidea den edozein herrialdetako nazionalitatea, edo, bestela,



BERRIOZARKO UDALEKO IDAZKARI LANPOSTUA BITARTE
BATERAKO ETA ADMINISTRAZIO ERREGIMENEAN BETETZEKO
BALDINTZAK

ahaidetasuna izatea, 10/2001 Foru Legeak, maiatzaren 24koak, xedatzen dituen edukiekin bat. Halaber, Europar Batasunak egindako nazioarteko hitzarmenak, Espainiak berretsiak, aplikatzeko esparruan sartzen diren pertsonak. Hain zuzen, hitzarmen hauek onartzen dute langileen joan-etorri askea.

- B) Zuzenbidean edo Politika Zientzietan lizentziaduna izatea.
- C) Lanpostuaren eginkizunetarako behar den gaitasun fisiko nahiz psikikoa izatea.
- D) Eginkizun publikoak betetzeko ezgaitua edo gabetua ez izatea, eta administrazio publiko baten zerbitzutik berezia ez izana.

3. oinarria. Prozedura.

3.1. Aldi baterako langileak hautatzeko prozedurek kontratazioa ahalik azkarrena egitea bermatu beharko dute, 113/1985 Foru Dekretuak, ekainaren 5ekoak, onarturik, Nafarroako Administrazio Publikoetan Sartzeko Erregelamenduaren 42. artikuluari jarraikiz.

Kontuan hartu behar da premiazko egoera dela ondoko bi arrazoi hauengatik: alde batetik, idazkariaren eginkizuna da toki entitateetako organoei lege-aholkularitza eta organoen ekitaldi eta ebazpen guztien fede publikoa ematea —Nafarroako Toki Administrazioaren 6/1990 Foru Legearen, uztailaren 2koaren, 239. artikulua hala xedatzen baitu— eta, bestalde, ez da gelditu behar udalaren bizitza eta kudeaketa, interes orokorra babesteko eta herritarrei zerbitzua emateko. Horregatik guztiarengatik, IRUÑEKO Arrotxapea auzoko enplegu bulegoari eskatuko zaio enplegu eskatzaileen zerrenda (lan hobekuntzarako eskatzaileak barne). Pertsona horiek deialdiaren 2. oinarrian agertzen diren betebeharrak eta baldintzak bete beharko dituzte. Halaber, aipatutako zerrendan egonen direnek hautaketa egiteko behar diren probetan parte hartzeko aukera izanen dute. Halaber, hautaketa prozesuan sartu ahalko dira aipatutako baldintzak betetzen dituzten izangaiak, baldin eta hautaketa probak egin baino lehen Epaimahaiaren aurrean ziurtatzen badute edozein enplegu bulegotan izena eman dutela enplegu eskatzaile edo lan hobekuntzarako eskatzaile gisa agertzeko.



4. oinarria. Kalifikazio-epaimahaia.

4.1. Honako kide hauek osatuko dute epaimahaia:

- Lehendakaria: Berriozarko Udaleko alkatea.
- Ordezkoa: Berriozarko Udaleko alkateak ordezkaritza emanen dion pertsona.

- 1. kidea: Berriozarko Udaleko idazkaria.
1. ordezko kidea: Berriozarko Udalak izendatuko du.

- 2. kidea: Zabaltzako eta Beraskoingo udaletako idazkaria.
1. ordezko kidea: Berriozarko Udalak izendatuko du.

- 3. kidea: Galarko Udaleko idazkaria.
1. ordezko kidea: Berriozarko Udalak izendatuko du.

- 4. kidea: Leitzako Udaleko idazkaria.
1. ordezko kidea: Berriozarko Udalak izendatuko du.

- 5. kidea: Bertizaranako Udaleko idazkaria.
1. ordezko kidea: Berriozarko Udalak izendatuko du.

- 6. kidea: Clara Ostériz, Berriozarko Udaleko ofiziala
1. ordezko kidea: Berriozarko Udalak izendatuko du.

4.2. Kideetako bat izanen da kalifikazio-epaimahaiko idazkaria, eta epaimahaiko kide guztiek sinatuko dituzten aktak egiteaz arduratuko da.

4.3. Epaimahaiaren osaketa eta jarduketa baliodunak izateko, osatzen duten kideen gehiengo osoak bertan egon beharko du.

4.4. Epaimahaiak gehiengoz hartuko ditu deialdiko oinarriak ulertzean eta aplikatzean planteatzen ahal diren kontu guztien gaineko erabakiak, eta berdinketa suertatzen bada, mahaiburuaren kalitateko botoak erabakiko du.



5. oinarria. Probak.

5.1. **Proba teoriko-praktikoa:** Kasu bat edo bi ebatzi beharko dira. Horretarako, txosten juridikoak idatzi beharko dira, ondoren zerrendatutako gaien artean epaimahaiak jartzen duen alderdiren baten gainean. Txostenak bi ordutan idatzi beharko dira gehienez, eta, bestalde, gehieneko puntuazioa 100 puntukoa izanen da. Probak bi ordu iraunen du gutxi gorabehera.

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legea.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea.
- Toki Entitateen Ondasunei buruzko Erregelamendua.
- Antolakuntzari eta Funtzionamenduari buruzko Araudia eta Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Araudia.
- Ondare erantzukizunaren arloan Administrazio Publikoen Prozeduren Erregelamendua.
- Kontratu Publikoei buruzko Foru Legea.
- Lurralde Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legea.
- Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Testu Eraberritua.
- Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzura ari diren funtzionarioen Erregelamendua: oporrak eta baimenak.
- Nafarroako Administrazio Publikoetan sartzeko Erregelamendua.
- Nafarroako Administrazio Publikoetako lanpostuak betetzeko Erregelamendua.
- Nafarroako Toki Ogasunen gaineko Foru Legea, baita hura garatzen duen araudia.
- 8/2007 Foru Legea, martxoaren 23koa, Nafarroako Poliziei buruzkoa.

5.2. Azterketa osoan lortutako puntuazioa ezin izanen da 50 puntukoa baino txikiagoa izan.

5.3. Probarako deialdi bakarra egonen da. Izangaiek probara agertu beharko dute Nortasun Agiri Nazionalarekin edo epaimahaiak identifikatzeko egoki jotzen duen bestelako agiri batekin, eta bazterturik geratuko dira aurkezten ez direnak.

5.4. Hautaketa probak egiteko, ahal diren denbora eta baliabideak egokituko zaizkie adierazitakoarekin bat hala eskatzen duten elbarriei.



5.5. Azterketak hasiko dira **2009ko apirilaren 30ean** 10:00etan, Berriozarko Francisco Casanova Musika Eskolan (Oianondoa k., 1). Horietan gutun-azal itxien sistema erabiliko da. Halaber, komentariarik ez duten legezko testuak erabili ahalko dira.

6. oinarria. Epaimahaiaren proposamena.

6.1. Proba bukatutakoan, Epaimahaiak adieraziko dio deialdia egin duen Administrazioari puntu gehien lortu dituen izangaia kontratatzeke proposamena.

6.2. Hautatutako izangaiak lanpostuan hasi beharko du astebeteko gehieneko epean, medikuaren bajaren gorabehera, aldi baterako kontratazioa justifikatzen duena, izangaiari jakinarazten zaion unetik kontaktzen hasita. Lanean hasten ez bada, horren organo eskudunak kontratatu ahalko ditu —behar bezala justifikatutako kasua ez bada edo lanean hasita lanpostua berriz hutsik gelditzen bada— hautaketa prozesuan puntuaziorik hoberena lortu duten izangaiak, baldin eta eskaintzen den kontratazioarekin beren adostasuna adierazten badute.

7. oinarria. Baliabideak.

7.1. Deialdiaren aurka, zein honen oinarrien eta aplikazio-egintza guztien aurka, hurrengo errekurtsioetako bat aurkeztu ahal izanen da aukeran:

- A) Berraztertzeko errekurtsioa, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.
- B) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, egintza edo helegitea jaso duen ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aitzina kontaturik.
- C) Gora jotzeko errekurtsioa, zuzenean Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, helegitea jaso duen egintzak edo erabakiak argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik aitzina kontaturik.

Berriozar, 2009ko apirila

ALKATEA,